

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Azaroak 29  
Larunbata  
Alea: 951  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Internet erabiltzen ikasteko oinarrizko ikastaroak eta nabigatzeko aukera 'KZ gunean', astelehenetik aurrera

■ Ordenagailuan ibiltzen batere ez edo gutxi dakien jendearentzat ikastaroak izango dira eta norbere kaxa internean ibiltzeko ordenagailuak ere badaude ■ Zerbitzua debalde da, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

ATZO inauguratu zuten KZ gunea Biteri kultur etxearen, eta datorren astelehenetik aurrera irekita egongo da. Inaugurazioan egon ziren Joxan Rekondo Hernaniko Alkatea, Agustin Elizegi Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteko zuzendaria eta Xabier Aizpurua KZ guneko Zuzendaria. KZ gunek Jaurlaritza eta Udaletxeen arteko elkarlanaren bidez ari dira irekitzen eta informatika eta bereziki interneta ahalik eta herritar gehienetan eskura jartzea dute helburua. Horretarako oinarri oinarrizko ikastaroak antolatu dituzte, ordenagailuan ibiltzen ideiarik ez duen jendeak interneten ibiltzeko baseak hartu ditzan.

### Bi gela, bi zerbitzu

Hernanin bi gela desberdin daude eta 18 ordenagailu. Gela batean ikastaroak emango dira eta beste gelan internean ibiltzeko aukera izango du inguratzen denak. Datorren astelehenetan dute irekitzekoa KZ gunea eta datorren aste osoan kurtsoetan izena ematen aukera izango da, abenduaren 9an hasiko baitira ikastaroak.

### 188garrena

Hernanikoa Euskal Autonomia Erkidegoan ireki duten 188garren KZgunea da eta urtea bukatzerako 204 irekitzea nahi dute arduradunek. Datorren urteko ekainerako, berriz, 270 KZ gune izango dira Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. Helburua da biztanle guztien % 10 pasatzea KZ gunetik eta % 4k ikastaroak egitea. Orain artean 110.000 lagunetik gora pasa dira 188 gunetik, formazio ikastaroetan 56.000



Alvaro eta Alfonso dira KZ guneko bi tutoreak. Ikastaroak eman eta jendeari laguntzen ariko dira.

lagunek eman dute izena eta seminarioetan 16.000 lagunek. KZ gunera dijoan bakotzari bere kodea eta interneko helbide bat ematen zaio mezuak jaso eta bidaltzeko eta dagoeneko 14.000 hirritarrek erabiltzen dute KZ gunetan emandako helbide elektroniko hori.

### 35 urtetik gorakoak

Internetean hasi berri diren 111.000 lagun hauetatik lautik hiru 35 urtetik gorakoak dira eta emakumeak gehienak. Erdiak langabetuak, etxeko andreak eta jubilatuak izan dira orain artean, beraien baitira ordenagailua ibiltzeko zaitasun gehien eta

aukera gutxien dituztenak.

### Kurtso desberdinak

Abenduaren 9tik aurrera ikastaro desberdinak emango dira Hernaniko KZ gunean: internean ibiltzeko oinarrizko kursoa, 20 orduko; adinez nagusientzako interneko oinarrizko kursoa, 10 orduko; internetari buruzko tailer aurreratuak; autoformazio kursoak; eta gai zehatzei buruzko seminario edo tailerrak, 1 eta 2 ordukoak. Esamina egin eta gainditzen dutenei IT agiria emango zaie. Kurtsoak eman eta jendeari laguntzen bi tutores ariko dira. □



KZ guneko ikastaro gela, Biteri kultur etxearen.

**Ordutegia:**  
astelehenetik ostiralera  
09:00-13:00 eta 16:00-20:00  
**Telefona:**  
943 332690

## AHT gelditu! taldeak erakusketa Plaza Berrian

ABIADURA haundiko trenaren aukako taldeak erakusketa informatiboa jarriko du gaur eguerdian Plaza Berrian, hiritarrek abiadura haundiko trenari buruz informazio jaso dezaten. Ekimenarekin bat egin du Bildu Hernani plataformak, Kronikara bidalitako prentsa ohar batean dioenez. □

### BERTSOLARITZA

## Finala erabakiko duen finalaurreko bihar

GIPUZKOAKO bertsolari txapelketa azken muturrera iristen ari da eta bihar jokatuko dute Tolosan azken finalaurreko. Jexux Mari Irazu Hernanin bizi den larrualdarraz gain, Jon Maia, Iñigo Manzisidor, Jon Martin, Iñigo Izagirre eta Iker Zubeldia ariko dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Antolakuntzak jakin arazi du Beotibar frontoian izan beharrean Leidor zinemana izango dela saioa, seguritate arazoak medio. Litekeena da zinea lepo betetzea eta saioa ikusi nahi duenak hobe du sarrerak hartzera goiz joan. □

### Ur ludoteka igandean

UMEENTZAKO ur jolasak antolatu ditu kirolegiak iganderako. Lehengo kurtsoan arrakasta haundia izan zuten eta bihar hastekoak dituzte, berriz ere. Normalean 10:30etatik 12:30etara izango da, baina, bihar waterpolo partidua dagoenez 10:00etatik 11:30etara izango da. □

## Hernasax eta Judith Monterok kontzertua bihar Udaletxeko arkupetan

SAXO kontzertua izango da bihar Udaletxeko arkupetan, eguerdiko 13:00etan. Hernasax taldeko Mikel Elola, Aritz Ostolaza, Edgar Carabajo, Itsaso Pacheco, Bauti Cuenca, David Muriel eta Zipri Otxandorena ariko dira Judith Monterorekin batean. Zuzendaria Roberto Pacehco da. □

**Antziola-Motor**  
Salmenta eta tailler zerbitzua

**Ford Mondeo**

- 3 aukera ezberdin,  
gusto ezberdinak:  
- 4 ateko elegantzia  
- 5 ateko deportiboa  
- Wagon familiarra  
  
Etorri, ikusi eta  
aukeratu.



Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72  
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

**JTXASPE**  
Arrandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobila: 653 74 10 97  
20120 Hernani  
[www.gabizta.org/hernani](http://www.gabizta.org/hernani)



**XXIII ARTÍS/AV AZOKA**

**HERNANI**  
ABENDUAK 7. IGANDEA  
GUDARIEN ENPARANTZA



**ORONA**

## Bost buzoi jendearen proposamenak jasotzeko

TOKICO Agenda 21aren barruan Udalak 5 buzoi jarri ditu Hernanin zehar, jendeak jasangarritasunari eta Hernaniko etorkizunari buruz dituen proposamenak jasotzeko. Kejak eta gomendioak ere utzi litzek buzoietan. Buzoia daude kirolegian, Udaletxean, Biteri kultur etxeen, Helduen hezkuntza zentroan (EPAn, Antziolan) eta Ereñotzun. Tokiko Agenda 21 ekimenak garapen jasan-garia bilatzen du eta ingurugiroaren errespetuari lotutako etorkizuna. Lan horretan herritarren parte hartzea eta iritzia jaso nahian dabilta eta hori da buzoiak jartzearen arrazoia. □



Udaletxe atarian dagoen buzoia. Berde kolorekoak dira.

## ■ ERRUGBIA

### Hernanik-Atletiko gaur Landaren

HERNANIK denboraldi hasiera dotorea daramaki eta gaur bosgarren garaipena lortzena irtengo dira Atletiko San Sebastianen kontra, 15:30etan Landaren. Orain artean ez dute partidurik galdu herniarrek

eta poliki poliki jokoa eta konfidantza ari dira hartzen. Denboraldi luzea gelditzen da oraindik, baina, badirudi mailaz igotzeko helburua lortzeko aukerak badituela Hernanik, horrela segi ezkerro behintzat. □



## ■ FUTBOLA

### Nesken taldeak Tolosa hartuko du gaur Zubipen

EMAKUMEZKOEN ligan burua altxa ezinda dabil Hernani aurten eta gaur ez du partidu erraza izango Zubipen Tolosaren kontra, 10:30etan. Gorengoa Trintxerpen jokatuko du 16:00etan. □

## ■ BOLEIBOLA

### Neskak Galdakaon eta mutilak Durangon

NESKEN taldea denboraliko lehen garaipena lortzen joango da gaur Galdakaora. 16:00etan dute partidua. Mutilen taldea, berriz, lideroa eustera dijoxa gaur Durangora, 18:45etan. □

## ■ WATERPOLOA

### Hernani Ak Donostian jokatuko du gaur

LEHEN taldeak jokatutako partidu guztiak irabazi ditu aurten eta gaur bere bosgarren garaipena nahi du Donostian, 20:30etan. Hernani Bk bihar Hernanin jokatuko du Osasunaren kontra, 13:00etan. □

## KIROLA

### ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	Non	Noiz	PELOTA	Eremontea - Galmetako Jaialdia		
Goren.	Trintxerpe-Hernani	Molino	Gaur 16:00	1) Urteaga-Lander/Lanea-Agirre-Zabala	Galameta	Gaur 16:00	
Emakum.	Hernani-Tolosa	Zubipe	Gaur 10:30	2) Ezkuna-A.Lekunberri/Zeberio II-Eizagirre	Galameta	Gaur 17:00	
Gaz. Eusk.	Hernani-Zamaga	Zubipe	Gaur 16:30	3) Juaristi-Lizaso/A.Irun-Irati	Galameta	Gaur 18:00	
Gaz. 1	Hernani-Orioko	Zubipe	Bilar 12:00	4) Zeberio-Urkoi/Iribarren-Urretabizkaia II	Galameta	Gaur 19:00	
Kad.O.H.	Hernani-RealSociedad	Zubipe	Gaur 12:30	Gipuzkoako Txapelketa			
Kad.1	Vasco-Hernani	Martutene	Bilar 09:30	Infantilak	Lazkano-Arista/Hondarribia	Lasarte	Gaur 16:00
Haur O.H.	Aiorga-Hernani	Rezoa	Bilar 12:00	Kadeteak	Gamendia-Otaegi/Ramuntxo	Lasarte	Gaur 16:00
Haur 1	Hernani-Pasajes	Zubipe	Bilar 10:45	Kadeteak	Eibar/Ezeiza II-Alegria	Alegria	Gaur 16:30
Alebinak	Aiorga-Hernani	Añorga	Bilar 13:45	Kadeteak	Txapagain/Ojuel	Ondizka	Bilar 12:00
BOLEIBOLA				Jubenilak	Goizuri/Ramones-Zumitza	Uretxu	Gaur 10:30
Neskak	Galdakao-Hernani	Galdakao	Gaur 16:00	Jubenilak	Huizi/Anaitasuna	Kiolegia	Bilar 11:00
Mutilak	Durango-Hernani	Durango	Gaur 18:45	Nagusiaik	Iazustaberenena-Otaegi/Ale Zama	Kiolegia	Gaur 18:00
ERRUGBA				Nagusiaik	Aizpuru-San Sebastian/Bergara	Kiolegia	Bilar 11:00
Liga Nazio.	Hernani-Atletiko SS	Landaia	Gaur 15:30	Paleta Jub	Lujanbi-Gaztia/A-mondo-Amarante	Kiolegia	Gaur 18:00
Jubenilak	Bera-Bera-Hernani	Anoeta	Gaur 16:00	Paleta	Aitzatana/Manzisidor-Martinez	Aiza	Bilar 14:45
Kadeteak	Santander-Hernani	Aberria	Gaur 16:00	Kronika Txapelketa			
WATERPOLOA				Nagusiaik	Etabe-Gumitxaga/Miranda-Gorria	Tibetan	Gaur 16:00
Euskal Liga	Easo-Hernani	Donostia	Gaur 20:30	Nagusiaik	Leganeta-Ezeiza/Iranburu-Artoia	Tibetan	Gaur 17:00
Euskal Liga	Hernani-B-Sasuna	Kiolegia	Bilar 13:00	Nagusiaik	Zelai-Urdangarin-Apez-Sanchez	Tibetan	Gaur 18:00
SASKIBALOA	Lacor-Bergara-Hernani	Bergara	Bilar 12:00				
Kadeteak							



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

- partidua: Uterga - Lander / Larrea - Agirre-Zabala
- partidua: Ezkurra - A. Lekunberri / Zeberio II - Eizagirre
- partidua: Juaristi - Lizaso / Altuna II - Iriarte
- partidua: Zeberio I - Urkoi / Iribarren - Urretabizkaia II



Igande eta jaiegunetan dantzaldia, 19,30etatik

**Bihar Igande, dantzaldia. ZATOZ!**

OIALUME BILTOKIA



Oialume auzoa  
943 55 29 38

## ■ HITZ BITAN

### ✓ KINTOAK

**49ko kinto eguna abenduaren 14an.** 1928an jaiotako kintoek egun pasa egingo dute abenduaren 14an, oihurari jarraituz. Eguerdiko 12:45etan hildako kintoen aldeko meza izango da Pake Leku kapilan, Urnieta Salesiarretan. Aurtengo urtean hil diren kintoak dira Juan Jose Eraunzeta Murgil Urnieta, Jose Usabiaga erreterriarra eta Felix Aginaga andoaindarra. Meza ondorenean bazkaria dute Oianume jatetxeen, 14:00etan. 49ko kinto egunean koadrila haundia elkartzen da normalean eta iaz 98 lagun elkartu ziren. Izena emateko 943 551371 (Agustin), edo 943 554845 (Seve).

### ✓ GALDUTAKOAK

**Telefono mugikorra galdu da Kale Nagusian.** Telefono mugikorra galdu du lagun batek Zabalegi arropa dendetik Txanxgorri elkartera bidean. Bilatzen duenak deitu 943 554697. □

## ZERBITZUAK

### ■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### + FARMAZIAK

- Egunez: Chucla Kardaberaz 48  
☎ 943 551793
- Gauze: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6  
☎ 943 363549

## I. URTEBETETZEA

### Milagros Urkola Arbide

2002ko azaroaren 7an hil zen.

*Nahiz eta gure artetik  
urrutira joan,  
beti izango zaitugu  
gure bihotzean*

Urtebetetze meza bihar, azaroak 30, igandea, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan bataiatzailearen parrokiaren.

Hernanin, 2003ko azaroaren 29an.



Eliz batean baietta eman  
genuen hoigeita lau urtekin  
eta ezkontzaz berrogeita hamar  
egin ditugu elkarrekin  
bizi modua eman nahi gendun  
guk itxaropenarekin  
urtien zama bizkarrian eta  
ilusioak aldegin  
orain alkari begira gaude  
ez dakigula zer egin

Lau alaba eta seme bat  
familian degu izana  
horiengandikan zapzi billoba  
heldu dira guregan  
sui eta errain osatu gera  
hau da gure panorama  
zuhaitz zaharraren kimu sendoak  
gu "Aitatzia ta Amama"  
hontz aurrera izan dedila  
Jangoikoak nahi duana  
Aterpe

**Axum eta Julian  
50 urte elkarrekin  
ZORIONAK**

IRAGARKI MERKEAK							
Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebral, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia, ...							943 33 28 94 - 626 80 76 33
Kale animaziorako jendea behar da, gabonetako kanpainarako. Mimoa, jokoak, musika, antzerkia eta abar.. Deitu: 943 55 55 19							
Jubilazioa dela eta, martxan dagoen arrandegia saldu edo alokatuko genuke prezio onean. Deitu: 943 55 61 83							
Lan bila nabilen neska bat naiz. Deitu: 626 91 97 12							
Gela bat alokatzen da, zentroan. Oso egokia kontsulta lanetako (fisioterapia, abokatuak, psikologo, ...). Interesatuek deitu: 943 55 46 97							

**Telemar ANTENAK**

TB ANTENA PARABOLIKOEN INSTALAZIOA  
INDIBIDUALAK ETA KOLEKTIBOAK  
TELEDISTRIBUZIOA  
KONTSERBAZIO eta MANTENIMENTUA

**CANAL+**

**DIGITAL +**

**Telemar - Itxastele**

Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99  
Nagusia 7 - Tel.: 943 33 26 00

**Telefonia fijo  
eta mugikorra**

**Telefónica  
MoviStar**